Haur eta Gazte Literatura

Koloreak sukaldean
Angélica López de la Manzanara.
Itzultzailea: Fernando Rey.
Denon artean, 2014



Irudimenari ateak irekitzen

XORRO ETA PITTI ditugu liburu honetako protagonistak. "Xorro ez da ez katu ez hartz-kume, ez zakur, ez ahate, ez arkume. "Honelaxe ekiten dio egileak liburuari, baina hori baino lehen azalean izenburuak adierazten digu zeri buruzkoa den obra, eta azaleko irudian sagu bat (Pitti), sukaldeko hainbat tresna eta animalia zehaztu gabea ageri zaizkigu. *Koloreak sukaldean* dio izenburuak, eta "koloreak" hitzeko hizki bakoitza kolore ezberdin batez azaltzen zaigu. Egilearen izenaren "i" hizkia, berriz, piper gorri batez egina dugu, sukaldeko elikagaien presentziarekin jolastuz.

Liburuaren hasieran, Xorro zer ez den azaldu ondoren, honakoa dugu: "Eta, sukaldeko gauzak lagun, koloreak erakutsiko dizkio Pittiri"; eta, hain zuzen, horixe izan daiteke liburu honen helburuetako bat, koloreekin jolastea, koloreak erakustea. Lapiko laranjak, pitxar gorria, sardexka berdea… kolore eta neurri ezberdinetako tresnak agertzen dira; baina Xorrok sukaldeko tresnez gain, "Sukaldean ongi ikasi baino lehen, jatekoak non bildu ikasi behar da hemen" adierazten dio Pittiri, eta horrela "Uzta ederra dute lortua, kolore beroz beteta: gorri goxoak, laranja distiratsuak, arrosa leunak eta hori dirdaitsuak". Testua ezkerreko orrian ageri den bitartean eskuinean saski bat dugu, zuri-beltzez egina eta barnean kolore bizi horietako elikagaiak. Xorro eta Pitti ere irudian ageri dira, lehenak paella batean hainbat elikagai dituelarik.

Liburuak ez du aparteko argumenturik, jolas bat da gehiago, ipuina edo kontakizuna baino. Koloreekin aritzeko liburua, bi lagunen arteko istoriotxoa, eta gertakariak, gutxi eta bakanak, adierazi baino iradokitzen dutenak. Alde horretatik Angélica López de la Manzanararen liburu honek literaturatik baino dibertimendutik du; haur liburu bitxia eta aparta dugu; euskaraz honelako gutxi ditugu, eta aproposa izan daiteke kontakizunekin batera, ipuinekin batera, tartekatzeko haur txikiekin. Izan ere, Xorroren nortasunak, bi lagunen arteko harremanak, amaierak… aukera handiak ematen dituzte horien inguruan istorioak asmatzeko, haurrekin jolasteko, irudimenari ateak irekitzeko. Horixe bailitzateke liburu honen ekarpenik handiena, itxi gabeko istorio bat izatea, behin eta berriro ikusteko, berrirakurtzeko, birjolasteko liburua.

Amaieran ageri zaigun "Ixxxxxxooooooo" luzeak liburuaren akaberan gaudela adierazteaz gain, lotarako gonbidapena ere bada, Xorro eta Pitti bezala begiak ixteko eta hurrengo egunera arte agurtzeko, ondo lo egin… ixxxxxxooooooo. ■

Xabier Etxaniz Erle